OT-001-2016

**Gaia:** Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

**Asunto:** Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: 59
Nork aurkeztu du: Sofía Real de Asua Cervera
Aurkezpen data: 2022/02/09

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

Iradokizunaren egilea, bere neba-arrebekin batera, erregimen komuneko lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lursailen jabe da, Leioako udal-barrutiko Ondiz inguruan.

Azaldu duenez, Bilbo Metropolitarrean indarrean dagoen LPPan lurzoru horiek garapen misto berriko eremu batean agertzen dira (bizitegietakoak eta jarduera ekonomikoetakoak), hektareako 30 eta 50 etxebizitza arteko dentsitatearekin; beraz, uste du haien garapena aurreikusita dagoela eta dituzten ezaugarriengatik urbanizatu nahi diren lurzoruak direla.

Aldiz, LPParen berrikuspenaren hasierako onespen-dokumentuak lurzoru horiek hiri-hazkundearen perimetroaren (HHP) barruan sartzen dituen arren, lurzoru horien kategorizazioa erabat aldatu du, eta "trantsizioko landa-paisaia" gisa kalifikatu ditu. Hala, azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien barruan, "Batasunaren intereseko beste habitat batzuk" kategoria eman die. Bestalde, Ingurumen Ebaluazioaren Txostenean, gune hori "Batasunaren intereserako lehentasunezkoak ez diren habitat" gisa katalogatuta dago.

Adierazten du hasieran onetsitako LPPak lurzoru horiei esleitzen dien katalogazioaren aurka dagoela.

Argudiatzen du lursail horiek ez direla inongo eremu natural edo erdinaturalen sareko parte, ez direla inolako ekosistematakoak eta

Sugerencia Nº: 59
Presentada por: Sofía Real de Asua Cervera
Fecha de presentación: 09/02/2022

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

La autora de la sugerencia se presenta como propietaria, junto con sus hermanos, de una serie de fincas de terrenos clasificados como suelo no urbanizable de régimen común, situados en el paraje de Ondiz, en el término municipal de Leioa.

Expone que en el PTP vigente de Bilbao Metropolitano estos suelos aparecen en un ámbito de nuevos desarrollos mixtos (residenciales y de actividades económicas) con densidades entre 30 y 50 viviendas /ha, por lo que entiende que su desarrollo está previsto y considera que por sus características son suelos con clara vocación de ser urbanizados.

En cambio, el documento de aprobación inicial de la Revisión del PTP, aunque incluye estos suelos dentro del perímetro de crecimiento urbano (PCU), introduce una modificación radical de la categorización de estos suelos, que pasan a ser calificados como "Paisaje Rural de Transición", atribuyéndoles, dentro de los condicionantes superpuestos de infraestructura verde, la categoría de "otros hábitats de interés comunitario". Por otro lado, en el Informe de Evaluación Ambiental este enclave aparece catalogado como "hábitats de interés comunitario no prioritario".

Manifiesta su oposición a la catalogación que el PTP aprobado inicialmente asigna a estos suelos.

Argumenta que estos terrenos no forman parte de ninguna red de zonas naturales o seminaturales, que no forman parte de ningún

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 7TR1-DJXN-J93D-TF7P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dagoeneko eraldatuta dauden edo eraldatzeko prozesuan dauden lurzoruz inguratuta daudela. Erantsi du ez dutela laguntzen konektibitate ekologikoa berreskuratzen, erabat inguratuta baitaude finkatutako hiri-garapenez.

ecosistema y que están rodeados de suelos ya transformados o en proceso de serlo. Añade que no contribuyen a la recuperación de la conectividad ecológica, al estar completamente rodeados de desarrollos urbanísticos consolidados.

Ondorio gisa, iradokizunaren egileak eskatzen du LPPak kendu diezaiela lurzoru horiei "Batasunaren intereseko beste habitat batzuk" kategoria, azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarri gisa.

Hala, eskatzen du lurzoru horien kategorizazioa berrikus dadila eta azter dadila ea lursailek hasieran aurreikusitako muga esleitzeko baldintzak eta betebeharrak betetzen dituzten.

Como conclusión, la autora de la sugerencia solicita que el PTP elimine la atribución a estos suelos de la categoría de "otros hábitats de interés comunitario", como condicionante superpuesto de infraestructura verde.

En este sentido, solicita que se revise su categorización y que se examine si los terrenos reúnen los requisitos y condiciones para atribuirles la limitación inicialmente prevista.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

Nabarmendu behar da lurralde-antolamenduaren arau-esparrua erabat aldatu dela (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Ingurumeneko Esparru Programa, LAG…), eta plangintza-irizpideak ere aldatu direla, ikuspuntu jasangarriago batekin bat etorriz eta metropoli-eremuaren betetzeari buruzko diagnostikoa kontuan hartuta.

Alde horretatik, LPParen helburuetako bat, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) eta Ingurumeneko Esparru Programaren irizpideen arabera, dagoeneko kalifikatuta dauden lurzoruak optimizatzea da, eta hain finkatuta dagoen eremu batean lurzoru berriak ez okupatzea (% 25 lurzoru artifizializatuak).

Lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa udalaren eskumena da. LPPak jada ez du proposatzen esleitutako dentsitate-tarteak dituzten garapen berririk, 2006ko LPPak egiten zuen bezala.

LPParen berrikuspenak egiten duena, LAGen 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hiri-hazkundearen perimetro bat (HHP) mugatzea da, zeinaren barruan baitaude iradokizunean aipatutako Ondizko lursailak.

Printzipioz, LAGen 11. artikuluaren arabera, Leioako hirigintza-plangintzaren etorkizuneko berrikuspenak lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu lezake lur horien zati bat edo guztiak, bere HHParen barruan baitaude.

Lurzoru horiek sailkatzen ez diren bitartean, LPPak ekosistema-balioak dituzten lurzoru urbanizaezinak sartzeko aukera ematen du metropoli-eremuko azpiegitura berdea osatuko lukeen hiri-azpiegitura berdeko sare bat

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

Hay que destacar que el marco normativo de la ordenación territorial ha cambiado por completo (Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, Programa Marco Ambiental, DOT...) y también han cambiado los criterios de planificación, de acuerdo con un punto de vista más sostenible, y teniendo en cuenta el diagnóstico sobre la saturación existente en el área metropolitana.

En ese sentido, el PTP, de acuerdo con los criterios de las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) y del Programa Marco Ambiental, tiene entre sus objetivos el de optimizar los suelos ya calificados y evitar la ocupación de nuevos suelos en un área tan consolidada (25% de suelo artificializado).

La clasificación y calificación de suelo es competencia municipal. El PTP ya no propone nuevos desarrollos con rangos de densidad asignados, como hacía el PTP de 2006.

Lo que sí hace la Revisión del PTP, según lo previsto en el artículo 11 de las DOT, es delimitar un perímetro de crecimiento urbano (PCU), dentro del cual se encuentran los terrenos de Ondiz aludidos en la sugerencia.

En principio, según el artículo 11 de las DOT, la futura revisión del planeamiento urbanístico de Leioa podría, de forma motivada, clasificar como suelo urbanizable parte o la totalidad de esos terrenos, al estar dentro de su PCU.

Mientras no se clasifiquen esos suelos, el PTP contempla la posibilidad de incorporar los suelos no urbanizables con valores ecosistémicos para definir una red de infraestructura verde urbana que complemente la infraestructura verde del



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 7TR1-DJXN-J93D-TF7P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zehazteko, LAGen 4. artikuluaren aginduari jarraikiz eta Europako jarraibideekin eta azpiegitura berdeari buruzko estrategia nazional eta autonomikoekin bat etorriz.

Lurzoruen eta landarediaren ezaugarriei buruzko datuak, hala nola lehen aipatu den "Batasunaren intereseko habitatak", Geoeuskadiren bisorea ardatz duten iturrietatik datoz. Datu horiek lehendik daude, eta haien zehaztasuna ez dago LPParen mende, dagozkien iturrien mende baizik.

Iradokizunak argudiatzen duenez eta 2006an indarrean zegoen LPPak bere garaian zehaztu zuenez, aipatutako lursailak ez dira Babes Berezikoak, dagoeneko garatuta dauden beste lurzoru batzuen mugakideak dira eta urbanizatzeko baldintza egokiak dituzte. Beraz, HHParen mugen barruan daudenez, birsailkatu egin daitezke, horretarako behar justifikatua izanez gero.

Leioako etorkizuneko egoitza-beharrei buruzko erabakia, LAGek eta LPPak ezarritako irizpideen esparruan, Udal horri dagokio bere HAPOa Berrikusteko prozesuan, baita lursail horiek lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzeko edo ez sailkatzeko azken erabakia ere.

Ondorioz, LPPa behin-behinean onesteko dokumentuaren hurrengo fasean lursail horiek ez dira "garapen berriko esparru" gisa jasoko, kontzeptu hori zaharkituta geratu baita arau-esparru berriarekin aldatu den plangintza-ereduan.

Halaber, ezin da aintzat hartu LPPak lurzoru horiei azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarri gisa "Batasunaren intereseko beste habitat batzuk" kategoria kentzeko eskaera; izan ere, informazio hori Eusko Jaurlaritzako Geoeuskadiren bisorean eskuragarri dagoen habitatei buruzko ingurumen-kartografiatik dator.

área metropolitana, de acuerdo con el mandato del artículo 4 de las DOT, y en sintonía con las directrices europeas y las estrategias nacional y autonómica sobre infraestructura verde.

Los datos sobre las características de los suelos y la vegetación, como el ya citado de "hábitats de interés comunitario", provienen de las diversas fuentes centralizadas en el visor de Geoeuskadi. Se trata de datos existentes, cuya exactitud no depende del PTP sino de las fuentes respectivas.

Tal como argumenta la sugerencia y como el PTP vigente de 2006 ya determinó en su día, los terrenos citados no son de Especial Protección, son colindantes a otros suelos ya desarrollados y presentan condiciones adecuadas para su urbanización, por lo que al quedar dentro de la delimitación del PCU cabría su reclasificación en caso de necesidad justificada.

La decisión sobre las necesidades residenciales futuras de Leioa, en el marco de los criterios establecidos por las DOT y el PTP, corresponderá a ese Ayuntamiento en el proceso de elaboración de la Revisión de su PGOU, así como la decisión final de clasificar o no esos terrenos como suelo urbanizable.

En conclusión, en la próxima fase del documento de aprobación provisional del PTP no se van a recoger esos terrenos como "ámbito de nuevo desarrollo", porque ese concepto ha quedado ya obsoleto en un modelo de planificación que ha cambiado con el nuevo marco normativo.

Tampoco puede atenderse la solicitud de que el PTP elimine la atribución a estos suelos de la categoría de "otros hábitats de interés comunitario" como condicionante superpuesto de infraestructura verde, ya que se trata de una información procedente de la cartografía medioambiental sobre hábitats accesible en el visor de Geoeuskadi del Gobierno Vasco.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 7TR1-DJXN-J93D-TF7P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus